COMMUNE D'USTARITZ

UZTARITZEKO HERRIA

# USTARITZ UZTARITZE

BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N° 4 - Décembre 2015

4. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA - 2015ko Abendua



**Le Maire** **Auzapeza**

**Bruno CARRERE**

Chers Uztariztar,

L'action communale se poursuit sur différents plans dont on peut citer :

- L'épineux dossier de la plaine des sports Etxeparea pour lequel la procédure a permis récemment d'estimer les travaux préconisés par l'expert judiciaire.
- Une promesse de vente a été signée pour le château Haltya le 23 décembre 2015. L'acquéreur y développera des activités de séminaires/réceptions et donnera une vocation culturelle par l'organisation d'évènements.
- Le vaste chantier de la révision du PLU (Plan Local d'Urbanisme) pour lequel le PADD (Projet d'Aménagement et de Développement Durable ) a été débattu et vous a été présenté en réunion publique en juillet. Il est à noter que le Conseil Départemental a validé un périmètre d'étude pour le contournement d'Ustaritz qui sera inscrit dans ce PLU.
- La signature avec le COL de la vente du terrain de Kiroleta, précédée d'une rencontre avec les riverains où le projet a été présenté en détail et les remarques intégrées.

Après une nécessaire période de mise en place entre équipe municipale et Comités de Quartiers, cette année aura aussi vu ces derniers jouer leur rôle à plein, que ce soit en tant que force de propositions et de travail auprès des élus, ou de générateur de liens entre les habitants de chaque quartier.

Uztariztar maiteak,

Herriko Etxearen ekintzak arlo ezberdinetan garatzen segitzen dugu, hala nola :

- Etxeparea kirol zelaiaren txosten konplikatua. Berriki, justizia adituak aholkatutako obren estimazioa egiteko balio izan du prozedurak.
- 2015eko abenduaren 23an Haltya jauregiaren salmenta hitzarmena izenpetua izan da.Erosleak mintegiak / ospakizunak garatuko ditu jauregian eta gertakariak antolatuz izaera kulturala emanen dio.
- Hirigintza Tokiko Planaren (HTP) aldaketaren obratzea. Antolaketa eta Garapen Iraunkorrerako Proiektua (AGIP) eztabaidatua izan zen, eta, uztailean, bilkura publiko baten karietara aurkeztua izan zitzaizuen. Kontseilu Orokorrak HTPn jasoko den Uztaritzeko herriaren saihesbidea egiteko ikerketa perimetroa onartu duela ohar zaitezte.
- COL egiturarekin Kiroletaren lursailaren saltzearen izenpetzea. Tokiko bizitzaileei proiektua xeheki aurkezteko eta beren oharrak integratzeko, beraiekin aitzinetik topaketak antolatu ziren.

Herriko Etxeko taldearen eta Auzo batzordeen arteko lana plantan ezartzeko behar den garaia pasatu eta gero, aurten, Auzo batzorde horiek beren zeregina osoki bete dute. Hautetsiengan lan eta proposamen indar gisa edo auzo bakoitzeko biztanleen arteko harreman sortzaile gisa arras baliosak dira.

## SOMMAIRE / AURKIBIDEA


| | | |
|---|---|---|
| Voirie-Travaux-Urbanisme | 3-4-5 | Bideak-Obrak-Hirigintza |
| Projets urbanisme | 6-7 | Hirigintza helburu |
| Agenda 21 | 8-9-10 | Auzo batzordeak |
| Politique linguistique | 11-12 | Hizkuntza politika |
| Economie | 13 | Ekonomia |
| Social | 14-15 | Soziala |
| Associations, Culture et Sports | 16-17-18-19-20 | Elkarteak, Kultura eta Kirolak |
| Opposition | 21-22-23 | Oposizioa |
| Etat civil | 24 | Egoera zibil |

**Bruno CARRERE**

**Auzapeza**  **Le Maire**

Sur un plan extra communal deux évènements sont à mettre en lumière :

- Le transfert de la compétence Petite Enfance à la Communauté de Communes Errobi. Pour mémoire, nous rappelons qu'Ustaritz était déjà dans une logique intercommunale avec la participation à l'association Urraska (avec Jatxou, Larressore et Halsou) qui gère 3 crèches dont celle d'Uztaritze. Ce transfert permettra une amélioration du service pour les usagers et présentera un intérêt financier pour la commune.
- Le vote favorable du Conseil Municipal du 26 novembre pour la constitution d'un Etablissement Public de Coopération Intercommunale (EPCI) unique (sous forme de Communauté d'Agglomération ) regroupant l'ensemble des 158 communes du Pays Basque nord. Ce vote s'inscrit dans une démarche lancée par le préfet dans le cadre de la loi NOTRe dont un des objectifs est de simplifier et regrouper les structures intercommunales. Si ce projet voit le jour à échéance du 31 décembre 2016, il se substituera donc aux 10 EPCI actuels du Pays Basque, dont Errobi. Nous avons considéré, au-delà des inévitables difficultés de mise en place de cette ambitieuse structure, qu'elle sera le cadre d'un projet d'avenir pour le Pays Basque Nord, dans lequel toutes les communes trouveront un intérêt à unir leurs forces. Cet EPCI sera par ailleurs le second en population, derrière l'agglomération bordelaise, de la nouvelle grande région qui naîtra le 1er janvier 2016 (regroupant Aquitaine, Poitou Charentes et Limousin). Cette taille confèrera à l'EPCI Pays Basque une dimension qui lui permettra de peser politiquement au sein de cette nouvelle région.

L'année 2016 devrait être celle du démarrage des études et travaux sur plusieurs dossiers majeurs : Matzikoenea à Arrauntz, salle d'activités à Herauritz, aménagements de la voirie à Hiribehere ainsi qu'une réflexion globale sur le plan d'eau (ancienne gravière) qui est devenu propriété communale. L'impact financier des travaux de remise en ordre et l'avancée de la procédure de la plaine des Sports Etxeparea devront être pris en compte dans l'élaboration du budget.

Cette année 2015 aura été riche en évènements et animations nouveaux sur notre commune, grâce à l'engagement de tous, associations et élus : Semaine bleue pour le 3ème âge, Guinguettes de la Nive, Journée des associations, conférences, etc… auxquelles s'ajoutent les animations et activités traditionnelles. Je remercie tous les acteurs ayant participé à ces initiatives en les encourageant à les renouveler dans les années à venir.

**Pour conclure, je vous présente à tous et toutes mes vœux les plus sincères pour cette nouvelle année.**

Herritik kanpoko gaietan, bi gertakari argitan ezarri behar dira :

- Haurtzaroa eskumena Errobi Herri Elkargoari eskualdatzea. Uztaritzeko herria jadanik herriarteko logikan kokatzen zela oroitarazten dugu, 3 haurtzaindegi – Uztaritzekoa barne – kudeatzen dituen Urraska elkartean parte hartzen baitu (Jatsu, Larresoro eta Haltsurekin batera). Eskualdaketa horrek erabiltzaileentzat hobekuntzak eta herriarentzat diru mailako abantailak adierazten ditu.
- Azaroaren 26ko Herriko Kontseiluan, Herriarteko lankidetzako erakunde publiko (HELEP) bakar bat osatzearen aldeko bozka. Hirigune Elkargo baten moldean egituraturik, ipar Euskal Herriko 158 herriak bilduko lituzke. Aldeko bozka hori, NOTRe legearen karietara prefetak bideratutako egitasmo baten testuinguruan kokatzen da. Izan ere, helburuetarik bat herriarteko egituren bateratzea eta sinplifikatzea da. 2016ko abenduaren 31ko azken epean proiektua gauzatzen baldin bada , ipar Euskal Herriko gaur egungo 10 HELEP egiturak ordezkatuko ditu, Errobikoa barne. Egitura handinahitsu hori plantan ezartzearen zailtasun saihetsezinetarik haratago, ipar Euskal Herriko etorkizuneko proiektu baten eredua izanen dela kontsideratu dugu, eta egitura horren baitan herri guztiek indarrak batzearen abantailak jasoko dituztela kontsideratu dugu ere. Gainera, Bordeleko hirigunearen ondotik, 2016ko urtarrilaren 1ean sortuko den eskualde handi berriko (Akitania, Poitou Charentes eta Limousin eskualdeak batuko dituena) bigarren HELEPa izanen da, biztanle kopuruari dagokionez bederen. Neurri horri esker, ipar Euskal Herriko HELEPak eskualde berri horretan politikoki eragiteko nahikoa pisu izanen du.

2016ko urtea, beste txosten garrantzitsuetan ikerketak eta obrak abiatzeko urtea izanen da : Arruntzako Matzikoenea, Heraitzeko aktibitate gela, Hiribehereko bideen antolamendua, eta orain herriaren jabegoan den aintzirari (lehengo legar-hobia) buruzko gogoeta orokorra.
Aurrekontua osatzean, Etxeparea kirol zelaiaren prozeduraren aitzinamendua eta horren berriz antolatzeko obren diru mailako eragina kontuan hartu beharko dira.

Elkarteen, hautetsien eta denen parte hartzeari esker, gure herrian, 2015 urtea gertakari berriz betea izan da : adineko jendearentzat aste urdina, Errobiko Gau Beila, Elkarteen eguna, hitzaldiak eta gutzi horrekin batera ohiko animazioak eta jarduerak. Gertakari horietan parte hartu duten guztiak eskertzen ditut, eta hurrengo urteetan ere parte hartzera gomitatzen ditut.

**Bururatzeko, urte berri honendako, denei nire agiantzarik hoberenak desiratzen dizkizuet.**

# VOIRIE - TRAVAUX

Cette fin d'année et début 2016 vont voir se concrétiser plusieurs dossiers mis en œuvre depuis de longs mois.

Au bourg, après les consultations auprès des associations, du comité de quartier et des habitants, la rénovation de la rue du Jeu de paume a pu démarrer pour finir en décembre. Le changement de sens de la rue du Bourg sera mis en place le 1er février 2016.

Au bas du collège St François Xavier, la fin du chantier de la gare routière est prévue pour fin janvier 2016 : les élèves pourront prendre les bus en toute sécurité. Le rond-point que doit faire le Conseil Départemental 64 a pris du retard suite à des aléas administratifs mais les techniciens et les élus se sont engagés à démarrer les travaux en janvier 2016.

Ce chantier sera aussi coordonné avec la remise à neuf de la rue du Bourg depuis la croix de Mokopeita jusqu'à la départementale.

En parallèle, la bonne synergie avec les services et les élus du Conseil Départemental 64 nous a permis de débloquer, en plus du rond-point au bas du collège, la mise en sécurisation par un feu tricolore du carrefour de Bidekurutzea du quartier St Michel.

A plus long terme, mais ô combien attendu, le contournement d'Uztaritze : Le 16 octobre une réunion avec les maires d'Uztaritze et de Larresoro, le président de la communauté de communes ERROBI, les 2 conseillers départementaux et les techniciens du CD 64 et de la mairie d'Uztaritze, avait lieu à Gaztelondoa. D'un accord unanime, les parties présentes ont adopté le principe de travail sur une « bande de prise en considération du projet » (fuseau). Le 26 novembre, le CD 64 a délibéré et confirmé le principe retenu, les études et procédures seront déclenchées. Cela prendra plusieurs années mais c'est la première fois que les choses sont actées à ce niveau. Le nouveau PLU d'Uztaritze permettra aussi de concrétiser la sauvegarde de ce fuseau pour ne pas obérer l'avenir de la faisabilité du contournement.



Urte hondar honetan eta 2016 urte hastapenean, badu hilabete zenbait landutako aztergai batzuk gauzatzen ikusiko ditugu.

Hiri barnean, elkarteak, auzo batzordea eta biztanleak kontsultatu ondoan, Plaza Laxoko karrikaren berritzea hasi da, eta, abenduan bururatuko da. Berehala, Hiri barneko karrikako norabide aldaketa plantan ezarria izanen da.

St François Xavier kolegioaren beherean, geltokiaren obralekua 2016ko urtarrila hondarreko amaitua izatea aurreikusia da : ikasleek autobusak segurtasun osoz hartzen ahalko dituzte. Gorabehera administratiboengatik, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak egin behar duen biribilguneak beranta hartu du, baina, teknikariek eta hautetsiek 2016ko urtarrilean lanak berriz hasteko engaiamendua hartu dute.

Obraleku hori, gainera, Hiri barneko karrikaren berritzearekin batera eginen da, Mokopeitako gurutzetik departamenduko errepideraino.

Paraleloki, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko zerbitzuekin eta hautetsiekin den sinergia onari esker, kolegioaren behereko biribilguneaz gainera, San Mixel auzoan, Bidekurutzea bidegurutzean zirkulazio argiak instalatuz segurtasuna hobetzeko aukera ere badugu.

Epe luzeagoan – eta berantetsia dugu –, Uztaritzeko saihesbidea : Urriaren 16an, Uztaritzeko eta Larresoroko auzapezak, ERROBI Herri Elkargoko lehendakaria, departamenduko 2 kontseilari eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko eta Uztaritzeko Herriko Etxeko teknikariak bateratu dituen bilkura bat iragan zen Gaztelondoan. Hor zirenek « proiektuaren kontuan hartze zerrenda » (ardatza) bat adostu zuten, aho batez. Azaroaren 26an, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak hautatuko oinarriaren aldeko erabakia hartu eta berretsi zuen. Orain, ikerketak eta prozedurak hasiko dira. Guzti hori plantan ezartzeko urte zenbait beharko ditugu, baina, lehen aldia da proiektua hein horretaraino aitzinatua dela. Uztaritzeko HTP berriak ere ardatz horren babestea ahalbidetuko du. Hala, etorkizunean, saihesbidearen egingarritasuna lagunduko du.

# BIDE - OBRAK

# VOIRIE - TRAVAUX

Une meilleure organisation dans les plannings et la technique vont nous permettre de faire plus avec les mêmes budgets : pour la réparation des routes, nous avons choisi de travailler avec l'équipe Voirie en utilisant le matériel communal. En 2015, nous sommes intervenus au Bourg, à Hiribehere, à Arruntza, et Heraitze .

En parallèle, un travail important de traçage de places de parking a été fait et permet de sécuriser et de gagner des places sur des sites très contraints. Dans le même ordre d'idée, un investissement important est fait pour renouveler la signalisation verticale (panneaux) et donc palier de nombreux manques ou matériel vieillissant risquant de compromettre la sécurité.

Ce chantier de sécurisation va continuer en 2016 avec la mise à 30km/h de certains secteurs, la sécurisation de la route de la gare, l'étude de rénovation et sécurisation de la rue d'Hiribehere depuis la côte d'Halty en concertation avec les habitants et la poursuite du travail avec les services du CD64 au sujet de la sécurisation de portions de la D350 à Arruntza.

Plangintzen eta teknikaren antolakuntza hobetuz, aurrekontu berdinarekin gehiago egiten ahalko dugu : errepideen konpontzeko, Bide Obrak taldearekin eta herriko materiala erabiliz lan egitea hautatu dugu. 2015ean, Hiri barnean, Hiribeheren, Arruntzan eta Heraitzen obrak burutu ditugu.

Paraleloki, aparkalekuen markatze lanak burutu ditugu. Hertsadura handiko lekuetan lekua irabazteko eta segurtasun neurriak hobetzeko balio dute. Gisa bereko ideietan, bide seinale bertikala (panelak) berritzeko inbestimendu handia egina izan da. Hala, gabeziak bete eta segurtasunerako arriskutsua zen materiala ordezkatu ahal izan dira.

2016 urtean ere, segurtasun neurrien indartze lanak burutuko dira : eremu batzuetan 30 km/oreneko abiadura ezarriko da, geltokiko bidean segurtasun neurriak ezarriko dira, Haltyako maldatik Hiribehereko karrikaren berritzearen azterketa eta segurtasun neurrien ezartzea biztanleekin elkar adosturik burutuko da, eta, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko zerbitzuekin Arruntzako D.350 errepidearen zati batzuen segurtasuna hobetzeko lanekin jarraituko da.



# BIDE - OBRAK

# TRAVAUX - URBANISME

Le grand chantier du nouveau PLU (Plan Local d'Urbanisme) continue : après le débat en Conseil Municipal du PADD (Projet d'Aménagement et de Développement Durable) le calendrier est respecté et la révision du PLU devrait se terminer fin 2016 début 2017 comme prévu.

Sans attendre, pour corriger les effets néfastes du PLU de nos prédécesseurs, les chantiers Bakea à Arruntza et Hirigoina à côté de l'église à Hiribehere ont été revus avec les promoteurs et des solutions plus adaptées ont été actées.

Pour Kiroleta, un projet que nous sommes obligés d'accepter suite aux engagements irrévocables de la municipalité précédente sur Musugorrikoborda avec le COL (Comité Ouvrier pour le Logement), la négociation porte sur une implantation moins dense que prévue et une connexion directe sur la D932 qui évitera le flux des nouveaux habitants sur le centre d'Hiribehere. Ce projet a été mené en concertation avec les riverains dans le cadre du comité de quartier .

Beaucoup de chantiers ouverts ces derniers mois sont moins visibles mais tout aussi importants pour le bon fonctionnement de la vie communale : les multiples réparations sur les installations de la piscine ont permis d'arriver à un niveau correct de fonctionnement ainsi que les changements de chaudières des écoles et autres bâtiments municipaux, salle d'Etxehasia, étude patrimoniale de Gaztelua (ancienne mairie), traitement des non-conformités au trinquet Kiroleta.

Le dossier du terrain de sport ETXEPAREA reste la grosse difficulté. Nous avons reçu les premières notes expertales qui nous permettent d'évaluer les solutions techniques pour la récupération pérenne de toutes les installations. Le caractère inondable prouvé de ce site complique la recherche de solutions mais notre volonté est de pouvoir enfin mettre ce site au service des clubs.

HTP (Hirigintza Tokiko Plana) berriaren lanketak jarraitzen du : Herriko Kontseiluan AGIP (Antolaketa eta Garapen Iraunkorrerako Proiektua) eztabaidatu ondoan, finkatu egitaraua errespetatua izan da. Hala, aurreikusi bezala, 2016 urte hondarrean edo 2017 urte hastapenean HTPren aldaketa bukatua izanen da.

Beha egon gabe, gure aitzinekoen HTPren ondorio kaltegarriak zuzentzeko, promotoreekin Arruntzako Bakeako obralekua eta Hiribehereko elizaren ondoko Hirigoinako obralekua berrikusiak izan dira eta ahalik eta kalte ttipieneko aterabideak onartuak izan dira.

Kiroletarentzat, aitzineko udal taldeak hartutako ezin aldatuzko engaiamenduengatik onartu beharreko proiektu baten aitzinean gaude. Musugorrikobordaren inguruko proiektua COL egiturarekin (Comité Ouvrier pour le Logement) adosten ari gara. Aurreikusitakoa baino ezarpen arinagoa eta D.932 errepidearekin konexio zuzena lukeen proiektua negoziatzen ari gara. Hala, Hiribehereko erdialdean, biztanle berrien jarioa saihestu nahi dugu. Proiektu hori biztanleekin elkar adituz eraman da, auzo batzordearen baitan.

Azken hilabeteetan bideratutako obra anitz, hain agerikoak ez izanik ere, herriko biziaren funtzionamendurako garrantzi handikoak dira : igerilekuaren muntaduretan egin konponketa ugariei esker funtzionamendu maila onargarri batera heltzea, eskoletako eta herriko beste eraikinetako galdarak aldatzea, Etxehasia gela, Gazteluako (lehengo Herriko Etxea) ondare-ikerketa, Kiroleta trinketa arauen araberan ezartzea…

ETXEPARIAko kirol zelaiaren txostena zailtasun nagusia da, oraindik ere. Adituen lehen oharrak jaso ditugu. Ekipamendu eta muntadura guztien berreskurapen iraunkorrerako aterabide teknikoak aztertzeko balio dute. Eremu hori urek hartzen ahal dutela frogatua denez, aterabideak bilatzea zailago egiten du. Hala ere, eremu hori berriz ere kluben esku ezartzea da gure xedea.

# OBRAK - HIRIGINTZA

# PROJETS URBANISME

A l'initiative de la mairie, plusieurs opérations d'aménagement sont en phase de réflexion et de lancement dans les quartiers Hérauritz et Arrauntz.

## HERAURITZ

Actuellement, les caractéristiques principales du centre d'Hérauritz sont :

♦ Un cœur de quartier traversé par une voirie qui dessert une zone avec une forte urbanisation récente entre le fronton et la Nive.

♦ Une école qui est à la limite de ses capacités et nécessite de nouveaux locaux.

♦ L'absence de locaux associatifs.

En prenant en compte les besoins des heraiztar, la municipalité a décidé d'agir en deux phases.

**Sur le court terme** en se centrant sur des opérations autour du fronton :

♦ Achat d'un terrain à l'angle du fronton, côté opposé à l'école : nous avons missionné une architecte pour qu'elle étudie un bâtiment à usages scolaire, périscolaire et associatif. L'étude a commencé en octobre et les heraiztar via les associations, le comité de quartier et l'école sont consultés pour participer à l'élaboration de ce projet afin de répondre au mieux aux attentes de tous.

♦ Travaux dans la maison Etxetoa avec la création d'une salle de sieste et de motricité pour utilisation scolaire.

♦ Travaux de voirie, signalisation horizontale et ralentisseurs pour un meilleur usage et une sécurisation accrue de la place.

Ces études et travaux permettront de solutionner des difficultés et d'améliorer la qualité de vie des heraiztar.

**Sur le long terme :**

La commune a sollicité l'EPFL (Etablissement Public Foncier Local) pour l'acquisition de deux maisons au centre d'Hérauritz dont la maitrise foncière pourra permettre de mener des projets.

Nous avons également eu plusieurs contacts avec la direction de l'UGECAM à Bordeaux (propriétaire du Centre de Rééducation Motrice) pour travailler ensemble sur une reconfiguration du quartier alliant des aspects urbanistiques à des aspects sociaux en intégrant les résidents et employés dans la vie du quartier.




Cette réflexion est menée en collaboration avec un urbaniste, mandaté en octobre 2015, pour étudier la faisabilité d'un aménagement général du quartier.

**ARRAUNTZ :** Deux opérations sont prévues sur des endroits distincts du quartier Arrauntz.

**<u>Musugorrikoborda</u> :**

Pour mémoire, nous rappelons que sur ce terrain nous avons stoppé le projet de la précédente municipalité qui comportait 135 logements à un endroit totalement inadapté pour ce type d'opération. Comme nous nous y étions engagés, nous mènerons sur une partie de cette zone un aménagement qui consistera en la vente de 11 lots à bâtir. Notre volonté est de les vendre à des prix permettant à des primo-accédants de les acquérir. Les constructions seront réalisées en cohérence avec les bâtis existants. Cette opération se fait avec Habitat Sud Atlantic.

**<u>Matzikoenea</u> :**

Comme indiqué dans le dernier bulletin, la municipalité a fait l'acquisition d'un terrain de la ferme Matzikoenea au centre d'Arrauntz. Une étude a été confiée à un urbaniste pour nous accompagner au mieux dans la procédure de conception puis de construction sur ce terrain.

Notre volonté à cet endroit stratégique pour les Arrunztar est d'élaborer un projet qui fasse appel à la réflexion collective en mettant à contribution les associations et le Comité de Quartier.

Nous bénéficierons également des conclusions d'une étude spécifique de la Chambre de Commerces et d'Industries (CCI) sur les besoins commerciaux à Uztaritze.



# HIRIGINTZA HELBURU




Herriko Etxearen ekimenez, Heraitzeko eta Arruntzako auzoetan, antolaketa zeregin ezberdinak gogoeta eta abiatze fasean daude.

## HERAITZE

Gaur egun, Heraitze auzoaren erdialdeko ezaugarri nagusiak honakoak dira :

♦ Pilota plazaren eta Errobiren arteko lurretan berriki azkarki urbanizatutako gunera heltzea ahalbidetzen duen eta auzoaren bihotzetik iragaten den bide bat.

♦ Bere harrera gaitasuna gainditzekotan den eta egoitza berriak behar dituen eskola bat.

♦ Elkarteendako egoitza batzuen eskasia.

Heraiztarren beharrak kontuan harturik, Herriko Etxeak bi fasetan eragiteko erabakia hartu du.

**Epe laburrean**, pilota plazaren inguruko zereginei buruz zuzenduko da :

♦ Pilota plazaren bazterrean, eskolarekiko beste aldean dagoen lur zati bat erostea : eskolak, eskolaldi inguruko jarduerek eta elkarteek erabiliko luketen eraikin bati buruzko azterketa egin dezan, arkitekto bati kargua eman diogu. Azterketa urrian hasi zen. Heraiztarrak proiektu horren lantzera gomitatuak dira. Proiektuak pertsona ororen igurikatzeei ahal bezain ongi erantzuteko, heraiztarrak elkarteen, auzoko batzordeen eta eskolaren bitartez kontsultatuak izanen dira.

♦ Etxetoa etxean obrak eginen dira. Eskolaren erabilpenerako, loaldirako eta motrizitatea lantzeko gela bat sortuko da.

♦ Bide obrak eginen dira. Plazako segurtasun neurriak eta erabilpena hobetzeko, bide seinale horizontalak eta bide konkorrak ezarriko dira.

Azterketa lanek eta obrek zailtasunei aurre egiteko eta heraiztarren bizi kalitatea hobetzeko parada eskainiko dute.

**Epe luzean :**

Heraitze auzoaren erdialdean bi etxeen erosteko eta horren bitartez aurreikusitako proiektuak bideratzeko, Herriko Etxeak EPFL egiturari (Tokiko Lurren Erakunde Publikoa) dei egin dio.

Hirigintzako aspektuek alderdi sozialekin bat egin dezaten eta bizitzaileek eta langileek auzoko bizian parte har dezaten, auzoaren berrantolaketa elkarrekin lantzeko hots, Bordeleko UGECAM egiturako zuzendariarekin (Birgaitze Zentroaren jabea) harremanetan jarri gara ere.

2015eko urrian hirigile bati mandatua eman genion, eta, berekin lankidetzan, gogoeta hori bideratzen ari gara. Hala, auzoaren antolaketa osoaren bideragarritasuna aztertzeko xedea dugu.

## ARRUNTZA : Arruntzako toki ezberdinetan bi zeregin aurreikusiak dira.




**Musugorrikoborda :**

Lur sail horretan aitzineko herriko kontseiluaren proiektua geldiarazi dugula oroitarazten dugu. Izan ere, gisa horretako operazioentzat guziz desegokia den tokian, 135 bizitegiren sortzea aurreikusten zuen proiektuak. Hitzeman genuen bezala, toki horren zati batean, etxe egiteko 11 lur sailen salmentarako antolaketa burutuko dugu. Lehen aldiz jabegora heltzeko asmoa dutenei, lur sail horiek prezio eskuragarrian saltzea da gure xedea. Jadanik existitzen diren eraikinekin koherentzian eginen dira eraikuntzak.

**Matzikoenea :**

Herriko azken aldizkarian adierazi bezala, Herriko Etxeak Arruntza auzoaren erdialdean den Matzikoenea baserriko lur sail bat erosi du. Lur sail horretan, diseinatze eta eraikuntza prozeduran gure laguntzeko, hirigile bat proiektua aztertzen ari da orain.

Arrunztarrentzat estrategikoa den toki horretan, gogoeta kolektiboa bultzatuko duen proiektu bat bideratzea da gure xedea. Horretarako, elkarteen eta auzoko batzordearen ekarpenak eta parte hartzea bultzatuko ditugu.

Uztaritzeko merkataritza beharrei buruzko Merkataritza eta Industria Ganberaren (MIG) azterketa berezitu baten ondorioak jasoko ditugu ere.

# AUZO BATZORDEAK




Badu kasik urte bat herrian auzo batzordeak plantan ezarri zirela. Demokrazia parte hartzailerako egitura berritzaile horiek, hastapenean, egokitzeak behar izaten dituzte, eta, ondotik ere, etengabeko hobetze bilakabidean izan ohi dira.

Lehen bilan bat egiteko tenorean, beren funtzionamenduaz arras kontent garela erraten ahal dugu. Izan ere, Herriko Etxearen eta herritarren artean, herriko biziari buruzko trukaketa zuzena izatea ahalbidetzen dute egitura horiek. Bulegoek beren auzoetako bizia hobetzeko hainbat proposamen helarazi dizkigute. Gaiak jadanik tratatuak izan dira edo hautetsiak eta Herriko Etxeko zerbitzuak proposamenak orain ikertzen ari dira.

**Ondoko taulak horietarik zenbait zerrendatzen ditu :**

| Dagokion batzordea | Obratzeak |
|---|---|
| Etxehasia – Oihana – Astobizkar | 30km/orenean mugatua den gune bat antolatua izan da Etxehasia hauzoaldean eta 50km/orenean orhoitarazten duten bide seinaleak ezarriak izan dira Hardoiako errebidean |
| San Mixel | Pasatze uzte bat antolatua izan da D932ko ateratze ingurabide heinean, Eliza Hegiko bidean, hilerriaren aldean |
| Arruntza | Arruntzako eskolako korralea segurtatua izan da ondorioz, pilota frontoia publikoari ireki dezakegu, eskolako tenoreetatik kanpo |
| Hiribehere–Zokorrondo | Bizkondeen karrikako oinezkoen trebesabidea, Mendietako karrikara lekutua izan da, segurtasun gehiagorentzat |
| Hiribehere–Zokorrondo | Oinezkoen trebesabide bat antolatua izan da Guadalupeko parean |
| Heraitze | Etxetoako baratzearen zainketa egina izan da eta urtean bietan eginen da |
| Hiribehere–Zokorrondo | Oinezkoen trebesabide bat antolatua izan da Kiroletako karrikaren gainekaldean |
| Orokoa | Oihanetaz ardura duen hautetsi ordezkariak, informazio bilkura publiko bat antolatu du oihanetako kudeantzaz |
| Arruntza | Oinezkoen trebesabide bat antolatua izanen da, autobusen geltokiaren eta pilota plazaren arteko pasaia segurtatzeko |
| Purgu-Xopolo | Purguko karrikaren ibil norabidea alderantzikatu behar da 2015ko urte hondarra aitzin |
| Etxehasia – Oihana – Astobizkar | Moldaketa andana bat egina izan da Etxehasia gelan : berogailuaren ezartzea elektrika arauetan ezartzea puska trabagarrien kentzea sarrailen aldatzea sarbidearen ber harriztatzea. |
| Etxehasia – Oihana – Astobizkar | Postak letra ontzi bat ezarriko du Bolagaina biribilguneko aldean |
| Heraitze | Stop seinale baten ezartzea esnetegiako bidearen sartzean eta pilota plazako jostalekuan |
| Heraitze | Herriko etxeak sare luze bat ezarriko du pareta ttipiaren luzetasunean, pilota plaza ongi mugatzeko eta gisa hortan, erabiltzaileak gerizatzeko. |
| San Mixel | Stop seinale baten eta miraila baten ezartzea pentsatua da, Dorreko patarrean, Begireneako bidearen heinean |
| Purgu-Xopolo | Errebidearen arimatze karietara, espaloi bat egitekoa da, gurutzetik seminarioara doan purguko karrikaren zatian. |

Auzo batzordeen zeregina ez da bakarrik proposamen zenbait helaraztera mugatzen. Biztanleen arteko topaketak eta bestak antolatzen dituzte ere, hala nola, auzo aperitifak edo apairuak, biltzar nagusiak,… Belaunaldi arteko topaketak eta biztanle berrien eta zaharragoen arteko kausitzeak ahalbidetzen dituzten ekimen mota horiek sostengatzen ditugu.

Proiektu garrantzitsuak bideratzean, biztanleak ahal bezain goiz juntatzeko, Herriko Etxeak auzo batzordeekin lan egitea erabaki du. Adibidez, talde batzuk herri erdialdeko bidea, Heraitzeko auzo erdialdea, Matzikoenea edo legar-hobiari buruz lanean ari dira edo arituko dira.

Auzo batzorde horiek denei irekiak direla oroitarazi nahi dizuegu. Ez duda, horietan parte hartu eta bertan burutzen den lanaren berri hartzea. Bulegoen eta biltzar orokorren bilkura agiriak Gaztelondoa Herriko Etxean eskura daitezke, eraikina zabalik den tenoreetan. Kontsulta zabalagoa eskaintzeko, afixatze taulak ere ezarri dira. Kokaleku ezberdinak Uztaritzeko Herriko Etxearen webgunean agertzen dira, « auzo batzordeak » atalean. Auzo batzorde horiei buruzko informazio guztia (hurrengo bilkuraren data, barne araudia,…) hor berean aurkituko duzue.



# COMITÉS DE QUARTIER

Voilà bientôt un an que les comités de quartier ont été mis en place sur la commune. A leur début, ces structures novatrices de démocratie participative ont nécéssité des réglages et sont en processus d'amélioration continue.

A l'heure de tirer un premier bilan, nous sommes particulièrement satisfaits de leur fonctionnement. En effet, ces structures permettent un échange direct entre municipalité et habitants sur la vie communale. Les bureaux ont émis de nombreuses propositions pour améliorer la vie de leur quartier qui ont été traitées ou sont en cours d'étude par les élus et les services de la mairie.

**Le tableau suivant en énumère plusieurs :**

| Comité concerné | Réalisation |
|---|---|
| Etxehasia – Bois – Astobizkar | Une zone limitée à 30km/h a été mise en place dans le quartier Etxehasia et des panneaux rappelant la limitation à 50km/h ont été mis en place sur la route d'Hardoia |
| Saint Michel | Un cédez le passage a été mis en place au niveau de la bretelle de sortie de la D932 sur le chemin Eliza Hegi à hauteur du cimetière |
| Arruntz | Une sécurisation de la cour a été réalisée à l'école d'Arruntz permettant l'ouverture du fronton au public en dehors des heures d'ouverture |
| Hiribehere–Sokorrondo | Le passage piétons au niveau de la rue des vicomtes a été déplacé vers la rue des Montagnes pour plus de sécurité |
| Hiribehere–Sokorrondo | Un passage piéton a été mis en place en face de la Guadeloupe |
| Hérauritz | Entretien du jardin d'Etxetoa réalisé et prévu 2 fois par an |
| Hiribehere–Sokorrondo | Un passage piéton a été mis en place en haut de la rue Kiroleta |
| Général | L'élu délégué à la forêt a organisé une réunion publique d'information sur la gestion forestière |
| Arruntz | Un passage piétion va être mis en place pour la sécurisation du passage entre l'abri bus et le fronton |
| Bourg-Xopolo | Le sens de circulation de la rue du Bourg doit être inversé avant le 1er février 2016 |
| Etxehasia – Bois – Astobizkar | Plusieurs aménagements ont été réalisés dans la salle Etxehasia : mise en place d'un chauffage, mise en conformité électrique, évacuation des encombrants, changement des serrures, reprise de l'empierrement du chemin d'accès. |
| Etxehasia – Bois – Astobizkar | Intervention de la poste prévue pour la mise en place d'une boîte aux lettres au niveau du rond point Bolagainia |
| Hérauritz | Installation d'un stop à l'entrée du chemin de la laiterie et de l'aire de jeu du fronton |
| Hérauritz | La mairie va installer un filet le long du petit muret pour bien délimiter le fronton et ainsi mieux protéger les utilisateurs. Les sens de circulation et les places de parking sont en cours de matérialisation devant le château sur la place d'Hérauritz |
| Saint Michel | La mise en place d'un stop et d'un réflecteur au niveau du chemin de Begirenea sur la Côte Dorrea est prévu |
| Bourg-Xopolo | Dans la cadre de la reprise de la route, un trottoir doit être créé pour le tronçon de la rue du bourg allant de la croix vers le séminaire |

Le rôle des comités de quartier ne s'est pas limité à émettre des propositions mais ils ont été à l'origine de rencontres et de festivités entre habitants avec l'organisation d'apéritifs ou de repas de quartier, d'assemblées générales, …

Nous ne pouvons qu'encourager ce type de manifestations, véritable lieu de rencontre intergénérationnelle et entre nouveaux et anciens habitants.

La mairie a décidé de travailler avec les comités de quartier pour associer la population le plus en amont possible sur des projets importants. Par exemple, des groupes travaillent ou vont travailler sur la voirie du Bourg, le centre d'Hérauritz, Matzikoenea, la gravière…

Nous tenons à vous rappeler que ces comités de quartier sont ouverts à toutes et à tous. N'hésitez pas à y participer ou à vous tenir informés de leurs travaux. Les comptes-rendus des réunions de bureau et des assemblées générales sont disponibles à la mairie Gaztelondoa pendant les heures d'ouverture. Des panneaux d'affichage pour permettre une consultation plus large ont été mis en place. Les différents emplacements sont mentionnés sur le site internet de la mairie d'Ustaritz dans la section « comité de quartier » où vous pouvez également retrouver toutes les informations relatives à ces comités de quartier (date de la prochaine réunion, règlement intérieur, …).







# De l'or au Pays Basque ?!

Ces derniers mois, vous avez sûrement suivi dans les médias, la sollicitation par la société Sudmine d'un permis de recherche d'or au Pays Basque. Le périmètre de recherche représente une surface de 126 km² répartie sur les 11 communes suivantes : Ainhoa, Cambo, Espelette, Halsou, Itxassou, Jatxou, Larressore, St Pée, Sare, Ustaritz.

Les mairies concernées ont été invitées à émettre un avis consultatif sur cette demande d'exploitation par la Préfecture par un courrier en date du 11 août 2015 et dans un délai d'un mois. C'est ensuite, la Préfecture qui devra émettre l'avis définitif. Nous tenons à dénoncer la méthode de consultation car dans le courrier, il était mentionné que le dossier «n'est ni diffusable, ni consultable par le public ». Cette méthode est contraire à la démocratie participative que nous prônons.

La mairie d'Uztaritze, comme la majorité des autres communes, a émis un avis défavorable à cette demande notamment à cause des nombreuses incertitudes sur le plan environnemental.

Une réunion publique d'information organisée par les associations UDE et CADE a eu lieu le 25 septembre dernier à la salle Lapurdi. Plus d'une centaine de personnes étaient présentes, montrant l'inquiétude des administrés face à ce projet. Une pétition a été mise en ligne sur le site internet du CADE.

Nous resterons vigilants à toutes les décisions et nous vous tiendrons informés des avancées.

# Urrea Euskal Herrian ?!

Azken hilabeteetan, komunikabideen bitartez, Sudmine enpresak Euskal Herrian urrea bilatzeko egin duen eskaeraren berri izan duzue, segurki. Ikerketa perimetroak 126 km²ko eremua eta ondoko 11 herriak estaltzen ditu : Ainhoa, Kanbo, Ezpeleta, Haltsu, Itsasu, Jatsu, Larresoro, Senpere, Sara, Uztaritze.

2015eko abuztuaren 11n igorritako gutun baten bitartez, hunkituak liratekeen Herriko Etxeak hilabete bateko epean ustiapen eskaera honi buruzko aholku-iritzi bat ematera gomitatu ditu Prefeturak. Ondotik, Prefeturak behin betiko iritzia emanen du. Iritzi trukaketarako erabilitako metodoa salatu nahi dugu. Izan ere, gutun hartan, txostena « publikoari ezin zabaldua eta publikoak ezin kontsultatua » zela idatzia zen. Eginmolde hori, guk gomendatzen dugun demokrazia parte hartzailearen guztiz aurkakoa da.

Uztaritzeko Herriko Etxeak, gainerateko herrien gehiengoak bezala, eskaera horren aurkako iritzia plazaratu du, ingurumen mailan diren zalantza anitzengatik, bereziki.

Irailaren 25ean, Lapurdi gelan, UDE eta CADE elkarteek antolatutako informazio bilkura publiko bat iragan zen. Ehundik goiti jende egon zen han. Herritarrek proiektu horren aitzinean dituzten arrangurak argiki adierazten ditu horrek. CADE elkartearen webgunean, linean, izenpetze bilketa edo eskaera bat zabaldu dute.

Erabaki guztien aitzinean erne egonen gara eta aitzinamenduen berri emanen dizuegu.

# Réduction de la consommation énergétique de la piscine

Afin de réaliser des économies d'énergie, nous avons étudié le bilan énergétique de chaque bâtiment communal. En juin 2015, l'installation électrique de chauffage de l'eau du bassin de la piscine Landagoien a été remplacée par 2 pompes à chaleur aérothermique. Après quelques mois de mise en route, nous constatons déjà une forte diminution de la consommation électrique. Par conséquent la facture énergétique communale, ainsi que les émissions de gaz à effet de serre seront nettement revues à la baisse. Pour information, en 2014, la consommation de la piscine représentait 35.16%, de la consommation totale des équipements communaux (bâtiments et voiries).

Dans cette même dynamique, d'autres actions ont été menées à l'école Idekia (isolation et changement de chaudière) ainsi qu'à Mailarena (isolation).



# Igerilekuaren energia-kontsumoaren murrizketa

Energia ekonomiak egiteko xedearekin, herriko eraikin ororen energia bilana egin dugu. 2015eko ekainean, Landagoien igerilekuko ur berogailu muntadura elektrikoaren ordez, 2 bero-ponpa aerotermiko ezarri genituen. Hilabete batzuk pasatu ondoan, elektrika kontsumoaren murrizketa azkarraz ohartuak gara. Herriko energia faktura eta berotegi-efektuko gasen kanporatzea azkarki apalduko dira, ondorioz. Informazio gisa, 2014an, igerilekuaren kontsumoak herriko muntaduren (eraikinak eta bideak) kontsumo osoaren 35.16%, ordezkatzen zuen.

Horri jarraikiz, Idekia eskolan (isolamendua eta galdarak aldatzea) eta Mailarena zentroan (isolamendua) beste ekintza batzuk burutu ditugu.

# L'EUSKARA À PORTÉE DE MAIN !

## UNE POIGNÉE D'IDÉES !

C'est prouvé scientifiquement, la langue basque ne se transmet pas génétiquement! Et ce qui est tout autant prouvé, c'est son ancienneté (plus vieille langue d'Europe de L'Ouest) et sa capacité, grâce à ses locuteurs obstinés, à survivre tant bien que mal aux périodes sombres qu'elle a dû et/ou doit subir. Mais rien n'est gagné, il n'y a pas de destin scellé et, la pérennité ou l'extinction de notre langue dépendra de nous tous, tout autant que des mesures politiques prises pour sa reconnaissance.
Ainsi, nous tous qui chérissons cette terre qui nous a accueillis, tôt ou tard, sommes garants du bien fondé de son appellation. Que deviendrait donc un Pays Basque dont sa propre langue aurait disparu ?
La mairie d'Uztaritze s'est engagée dans une voie positive et efficace de valorisation et d'utilisation de l'euskara.
Aujourd'hui c'est à vous, tous les uztariztar, que nous nous adressons, afin de vous motiver à approcher notre langue, la connaître un minimum, et participer à sa survie en la pratiquant.

**Les cartes sont aussi entre vos mains !**

Bere zahartasuna alde batetik (Mendebaldeko Europako hizkuntza zaharrena da), eta, hiztun kementsuei esker, bizi dituen edota behar izan dituen garai beltzenei aurre egiteko duen gaitasuna gaitasuna ukaezinak dira.
Baina deus ez da irabazia, ez dago aitzinetik finkaturiko paturik, eta gure hizkuntzaren biziraupena edo galera gu denon arabera gertatuko da, bere ezagupenerako hartuko diren neurri politikoekin batera.
Horrela, lurralde hau maite dugun guztiok, aspaldian ala berriki Euskal Herritartuak, honen izena eta izanaren berme gira. Zer litzateke Euskal Herria euskararik gabe ?
Uztaritzeko herria, euskararen aldeko bide positibo eta eraginkorrean abian jarri da.
Egun, zuei, uztariztar guztiei dei egiten dizuegu, anima zaitezten, edota zuen ondokoak anima itzazuen euskarara hurbiltzera, ikastera eta erabiltzera.

**Euskararen geroa denon eskura dago !**




# EUSKARA ZURE ESKURA ! PRAKTIKATZEKO ZENBAIT BIDE !

**Cours pour adultes à la Gau Eskola**
Les Gau Eskola sont les antennes locales d'AEK, la Coordination pour l'Alphabétisation et l'Enseignement de la langue basque, l'euskara.
Les offres concernent différents niveaux qui vont de l'initiation à l'alphabétisation.
Les cours peuvent être dispensés en cours du soir, en journée, en entreprise, ou encore en stages intensifs allant d'une semaine à plusieurs mois.
Nous avons la chance d'avoir une Gau Eskola sur notre commune, qui siège à Lagunen Etxea, au milieu des écoles Saint Vincent, Ikastola et Idekia.

➥ Uztaritzeko Gau Eskola (AEK)
Lagunen etxea 05 59 70 30 74
ustaritzeko-gau-eskola@wanadoo.fr

**Auto-apprentissage et Cours Online**
Les offres d'apprentissage de l'euskara se multiplient et se diversifient.
Avec l'explosion de l'utilisation d'internet des offres d'auto-apprentissage et de cours en ligne ont été développées, certaines gratuites, d'autres payantes.

➥ learn101: initiation (gratuite)
learn101.org/fr/basque.php
Support écrit : adjectifs, noms, pluriel, genre, nombres, phrases, grammaire, vocabulaire, verbes…

➥ Gure Irratia | RadioKultura: cours (gratuit)
www.radiokultura.eus/euskara-kurtsoak
Support audio et écrit. Basé sur l'émission de la radio bas- cophone Gure Irratia (les salutations de début des cours sont en euskara, le cours commence ensuite).

➥ e-uskaltegia : cours d'AEK (payant)
www.egela.aek.eus
Cours de 190 heures, d'octobre à juin, pour atteindre les niveaux B1, B2, C1, C2, pour passer le diplôme EGA ou encore pour se perfectionner. Voir les tarifs sur le site.

**Stages et internatsformations intensives en Immersion**
Parmis les différentes offres, l'immersion reste la plus efficace pour apprendre un maximum en un minimum de temps. Suivant la durée choisie, elle peut venir en complément d'autres cours ou être la base même de l'apprentissage.

➥ AEK Baiona
22 Marengo, 64100 BAIONA
05 59 25 76 09 - 05 59 59 50 99

➥ Maizpide
Elosegi, 40, bis, 20210 LAZKAO (Gipuzkoa)
+34 943 889 231
lazkao@maizpide.eus www.maizpide.eus

**Bourses à l'apprentissage / Bekak**
Des aides financières pour l'apprentissage de la langue basque existent. Elles sont variables suivant certains critères d'attribution ainsi que le niveau ou le choix du mode d'apprentissage.
La communauté de Communes Errobi peut, à ce jour, financer une partie des cours du soir.
La commune, quant à elle, mettra en place une aide pour les stages intensifs.
Rendez-vous en septembre pour plus d'informations !

➥ www.facebook.com/uztahitzan

**Mintzanet.net**
Azaroko UztaHitzan ekimenaren kari, Mintzanet egitasmoa
aurkeztu genuen.
Bikote bat aurkitu zure, ala euskaldun berri baten euskara hobetzeko, lehen kasuan ikaslebidelaria izanen zirelarik, eta bigarrenean ikas-bidelaguna.
Eta tresnak bigarren balio izan dezan, Uztaritze-Tolosa aukera sortu dugu, Uztariztartolosar bikoteak sortzeko!
Animatu eta izena eman!

➥ mintzanet.net

**…eta liburutegian**
Urtez urte, herriko mediatekan euskarazko fondoa handitzen doa. Berriki, hainbat aldizkari eta egunkariren harpidetza hartu dugu, euskaraz irakurtzeak hizkuntza aberasten laguntzen baitu. Horrela, hemen dira herriko liburutegian atxemanen dituzun harpidetza berri horiek :

➥ BERRIA egunkaria, asteartetik ortziralera
➥ ARGIA astekaria
➥ THE BALDE aldizkari grafikoa (eu/en)
➥ GAZTEZULO aisialdi aldizkaria
➥ IRRIEN LAGUNAK Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen hilabetekaria
➥ EUSKAL MEMORIA fundazioaren lanak liburuak eta aldizkaria



## JUMELAGE UZTARITZE - TOLOSA

• **Le 9 septembre**, nous avions rencontré la nouvelle équipe municipale de Tolosa pour faire connaissance et le point sur les différents projets en cours. Nous avions reçu un accueil chaleureux et le souhait de maintenir ce jumelage dynamique avait été exprimé.

• **le 12 septembre**, en partenariat avec le Comité de jumelage, une quinzaine d'associations de Tolosa se sont déplacées à Ustaritz dans le cadre de la journée des associations : association en faveur de la langue basque Galtzaundi, association de parents Altzoan, association gastronomique Lizardi, Tolosa Kantarikoa, groupe de danse Udaberri, troupe de théâtre Katiuska, association culturelle Box.a, Udal euskaltegia, association sportive Tolosa CF, club de rame, AEK, école de bertso, danse africaine. Le bilan de la journée est très positif et des idées de projet sont déjà lancées. Ce même jour, des acteurs économiques de Tolosa ont échangé à l'occasion de visites d'entreprises

• **Le 11 octobre** dans le cadre de Mutxikoaren eguna et du festival Herri Uzta, s'est produit le groupe Udaberria de Tolosa.

• **Le 27 novembre**, dans le cadre d'Uztahitzan, Olatz PEON (mairesse de Tolosa), Jokin AZKUE (adjoint politique linguistique) et Nuria COMBLE (adjointe à la culture) ont répondu à notre invitation. Cette deuxième rencontre nous a permis de faire plus ample connaissance et réfléchir sur différents axes de travail.

• Comme nous vous l'avions présenté sur le dernier bulletin, le projet d'éducation participative sur le thème « En déroulant la mémoire des frontières » entre le lycée Saint Joseph et trois établissements de Tolosa, initialement prévu le 13 novembre, sera repoussé **28 avril 2016**.

Dorénavant, sur le site de la mairie dans la section « jumelage », vous retrouverez les principales manifestations organisées à Tolosa.

## UZTARITZE- TOLOSA SENIDETZEA

• **Irailaren 19an**, joan den maiatzeko herri hauteskundeen ondotik, Tolosan hautatu zinegotzi berriekin kausitu ginen eta bidean diren proiektu ezberdinei buruz puntua egin genuen. Harrera beroa jaso genuen eta senidetzea dinamiko mantentzeko gogoa adierazi ziguten.

• **Irailaren 12an**, elkarteen egunaren kari, eta senidetzearen elkartearekin elkar lanean arituz, Tolosako hamabost bat elkarte Uztaritzera jin ziren : Galtzaundi euskararen aldeko elkartea, Altzoan burasoen elkartea, Lizardi elkarte gastronomikoa, Tolosa kantarikoa, Udaberri dantza taldea, Katiuska antzerki taldea, Box.a elkarte kulturala, Udal euskaltegia, Tolosa CF Kirol elkartea, arraun kluba, AEK, bertso eskola, Afrikako dantza elkartea. Egunari buruzko bilana baikorra da, eta proiektu ideiak bidean dira jadaneko... Bestalde, egun berean Tolosako eragile ekonomikoekin hartu emanak izan dira enpresetan antolatu bisiten karietara.

• **Urriaren 11an**, Mutxiko Egunaren eta Herri Uzta festibalaren karietara, Tolosako Udaberria taldea dantza ikuskizun bat eskaintzera gomitatua izan zen.

• **Azaroaren 27an**, Uztahitzanen kari, Olatz PEON (Tolosako auzapeza), Jokin AZKUE (hizkuntza politika zinegotzia) eta Nuria COMBLE (kultura zinegotzia) gure gomitari erantzun zuten. Bigarren topaketa honi esker elkar ezagutza egiten segitu ginuen eta eramaten ahal diren lan ardatzak gogoetatzen hasi ginen.

• Azken aldizkarian aurkeztu genizuen bezala, azaroaren 13an Uztaritzeko San Josepe lizeoa eta Tolosako hiru ikastetxeen artean « Mugaldeko memoriak harilkatuz » gaian oinarritutako proiektua iragan behar zen. Azkenean gibelatua izan da eta **2016ko apirilaren 28an** eginen da.

iKas

**Situé en plein coeur d'Ustaritz, face au château Lota, le centre pédagogique basque IKAS** remplit des missions liées à l'enseignement du basque ou en basque :

**• Publication d'outils pédagogiques créés ou traduits en langue basque.**

De la maternelle à l'enseignement du basque aux adultes, l'offre d'IKAS est abondante et variée, tant du point de vue des disciplines traitées (langue, mathématiques, sciences, histoire, etc.) que des supports de publication : fichiers, manuels, affiches, CD, DVD et édition numérique.

IKAS édite aussi la version basque de **grands classiques de la littérature jeunesse** en langue basque (albums du Père Castor, oeuvres de Philippe Corentin, Anaïs Vaugelade, Tomi Ungerer, etc...) ainsi que des créations contemporaines (Amaia Hennebutte-Millard, Chantal Barnetche, Paxkal Bourgoin, Josiane Aguerre-Valencia, etc...).

Nos partenaires institutionnels : l'Éducation nationale et l'Office public de la langue basque, lesquels reconnaissent IKAS comme organisme participant à une mission de service public, ainsi que l'Académie de la langue basque, gage de la qualité linguistique de nos productions.

**• La médiathèque du Centre Ikas est riche d'environ 30.000 références :** littérature jeunesse, littérature adulte, ouvrages d'accès facile pour toutes personnes apprenant l'euskara, films, dessins animés, CD, presse en langue basque.

**Elle est ouverte au public, pour consultation et emprunts, du lundi au vendredi, de 9 heures à 12h30 et de 14 heures à 18 heures.**

**Contact : info@ikas.eus - Tél. 05 59 93 24 80**

**IKAS euskal pedagogia zerbitzuak ikastresnak sortzen edo euskaratzen ditu**, lehen mailako eta bigarren mailako irakaskuntzarentzat bereziki, jende helduen irakaskuntzaraino.



IKASen eskaintza mota askotakoa da, bai gaien aldetik (hizkuntza, matematikak, zientziak, historia...), bai euskarrien aldetik : fitxategiak, eskuliburuak, afixak, CDak, DVDak eta argitalpen elektronikoak.

Bestalde, **haur literaturako albumak** euskaratzen ditu IKASek (Flammarion argitaletxeko Père Castor saila, Philippe Corentin, Anaïs Vaugelade, Tomi Ungerer,…) eta obrak sortzen, besteak beste Amaia Hennebutte-Millard, Xantal Barnetxe, Paxkal Bourgoin eta Josiane Aguerre-Valenciarenak...

IKAS zerbitzu publiko gisa ezagutzen dute Hezkunde nazionalak eta Euskararen erakunde publikoak. Euskaltzaindiak gure argitalpenak gainbegiratzen ditu.

**IKASen mediatekak 30.000 bat dokumentu eskaintzen ditu, kontsultatatzeko, edo mailegatzeko :** haur eta gazte literatura, helduen literatura, euskara ikasten ari direnentzako liburuak, filmak, marrazki bizidunak, CDak, euskal prentsa...

